

«Kontatzen dudana formari egokitzeke gai naizela erakutsi nahi dut»

Ez gara besteak baino hobeak. Oraindik atera ez den liburu baten aurkezpena antzezten hasi, eta liburuaz ezik, beste guztiari buruz hitz egiten bukatu dugu.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Zure laugarren liburuaren aurkezpenean gaude, kazetari andana duzu aurrean, grabagailu guztiak zure hitzen zain.

Hasieran, “liburua nik idatzi dut, liburuaz badakit, eta nahi dudana kontatuko diet” pentsatuz joaten nintzen aurkezpenetara. Baina konturatu naiz kazetariei nahi duten hori oso-oso txikituta eman behar zaiela, detaile eta hausnarketa literario sakonik gabe, eta oso ondo prestatu behar dela zein pilula eman eta zein ez. Oraindik ez dut laugarren libururako pilula multzoa prestatu, baina amu polita izan daiteke markoa diktadura bat izango dela esatea. Diktadura hori hemengoarekin ez identifikatzeko, munduko hainbat diktaduren ezaugarriak nahastu ditut, halako diktadura berezi bat sortuz. Alde batetik fikzioa izango da, baina baita errealitatea ere. Hau da, agertzen diren elementu guztiak errealitateetik hartu ditut, ez dira asmatuak, batzuk oso gogorrak izan arren.

Hain larria da jendeak detaileak identifikatzea? Zergatik dena kamuflatzeko etengabeko behar hori?

Istorioa Finlandian pentsatu arren, protagonistak Garikoitz, Asier eta Aitor baldin badira, izenean soilik itzelezko iragana dakarte. Pertsona bat Aitor deitzen da bere familia euskalduna delako, horrek kultura eta historia oso bat dakar, gauzak egiteko modu bat, umore jakin bat, heriotza sentitzeke era bat. Zuk izen bat jartzen duzunean, pertsonaia edo leku bat identifikatzen duzunean, itzelezko bagajea itsasten diozu, istorioa lastratuz. Irakurlea eragozpen horiekin zamatzan baduzu asko narrasten da kontara.

Baina fikzioa ez al da errealitatean oinarritzen?

Niretzako ezinbestean. Esan izan didate nire liburuak errealismo magikoa direla, baina nire liburuetan agertzen den guztia errealitatean gertatu litekeena da. Beste kontu bat da, gogoeta zoro, absurdu edo surrealista egitea, baina gertatzen dena benetan gerta daiteke eta askotan gertatu izan da. Kontua da, Teleberrian hiru buruko ume bat jaio dela esaten badizute kurioa iruditzen zaizula, eta nobela batean irakurtzen baduzu idazlea pasatu egin dela. Baina berdin da, gai bati buruz idazteko asko jakin behar duzu, nahiz eta gero ez igarri.

Esadazu, beraz, aurkezten hasi zaren liburua idazteko psikiatriko batean ibili zarela.

Damutu naiz hori zabaldu izanaz, baina tira. Hor prozesu bat egon zen. Asko irakurri nuen psikiatriari eta gaixotasun psikiko bati buruz, dokumentalak eta pelikulak ikusi nituen, testigantzak jaso, baina konturatzen nintzen ez zela nahikoa. Ohartzen nintzen gauza bat zela R-k ez dakit zer egiten zuela irakurtzea, eta beste gauza bat R hori bertan ikustea. Hitz egiteko modua, keinuak, bere delirioak nola eragiten dion izaeran, bere egunerokoa... Oso aberasgarria izan zen niretzat.

Nortasun agiria

1973ko otsailaren 14an jaio zen idazle algortarra (Bizkaia). Deustuko Unibertsitatean euskal filologian lizentziatua, irakasle eta itzultzaile lanetan aritu zen, idazteari erabateko dedikazioa eskaini aurretik. *Vredaman* (Elkar, 2005), *Van't Hoffen ilea* (Elkar, 2003), eta *SP-rako tranbia* (Elkar, 2001) idatzi ditu, azken honek 2002ko Espainiako Narratiba sari nazionala eman ziolarik. Horrekin aski ez eta bertan oinarritutako *Un Poco de Chocolate* filma estreinatu berri du Aitzol Aramaio.

• PERTSONAIA •

Unai Elorriaga



Unai Glorriaga

Zer dago psikiatrikoko hormen artean?

Kanpotik ikusita, kasu kliniko batzuk ikaragarriak dira, literatura hutsa. Baina behin barrura sartuta, tragedia itzela da, eurentzako, familiarentzako. Inguru guztia narrasten dute, euren burua lehena, eta asko sufritzen dute. Horregatik, hain harrigarria eta bitxia ematen duena pintzekin eta tentu handiz tratatu behar da.

Jende horrekiko dugun begirada ez da ez literatura, ez tentuzkoa.

Topiko asko dago. Bortitzak direla uste dugu, eta guztiz kontrakoa da. Oso pertsona maitagarriak dira, oso humanoak, bestearekiko oso emanak, beti agurtzen zaituzte, beti galdetzen dizute zelan zauden, eta bai, bortitzak dira halako atake batek ematen dienean. Baina, pertsona normal batek haserrealdi fuerte bat daukanean, biolentzia berbera agertzen du. Gizartean dagoen biolento proportzio bera dago psikiatrikoetan. Psikiatrek gaixoen aurkako estigma handia dagoela diote. Bortitzak direla, arraroak direla, ez daudela gizartean saritzeko moduan... Guztiz kontrakoa da, baina kanpotik ez da hori ikusteko indarririk egiten.

Hori hala, gai guztiek daukate literatura?

Ziur baietz. Julio Cortazarrek ipuin asko ditu boxeoaren inguruan, eta telebistan ikusita sekula ez zenuke esango boxeo literarioa denik. Niri ez zait boxeo gustatzen baina ipuin horiek irakurtzean, "hau da honen barruan dagoena, ez da kirol bat soilik, bizitzeko modu bat da, mugimendu bat" pentsatzen dut. Munduan existitzen den orok dauka zerbait erakargarria, ez zaio alferrik norbaiti gustatzen. Norbait hori erakarri badu, esentziala da, eta mundu guztia-arentzat balio dezake ondo esplikatzeko gero. Hor dago literaturaren funtzioetako bat, gauzak ondo esplikatzeko erakartzea.

Aurreiritziak

"Lehen pentsatzen genuen hemen txikiak ginela, ezer gutxi egiten genuela, eta bazter batean geundela. Gero konturatzen zara New York bera bazter bat dela. Australiak baten bloga irakurtzen duzu eta zure antzeko kezak ditu. New Yorkeko batek judu bati buruzko itzelezko istorio bat egin ahal badu, guk zergatik ez?"

Gauzak ondo esplikatzeko erakartzeko derrigorra zaizu nobela bat idazten hasi aurretik dena goitik behera pentsatuta edukitzea?

Hastapenetan ohartu nintzen hasi daitekeela idazten buruan ideia bat edukita non bukatuko duzun jakin gabe, baina askoz gauza borobil eta sakonagoak egin daitezkeela osotasun bat bilatuta. Egia da hizkuntza landu behar dela, pertsonaiak landu behar direla, baina egitura da lantzen zailena eta askotan lantzen ez dena. Oso zaila da. Nik ahalegin handia egiten dut horretan, gero denak oso kaotikoa dirudien arren. Beti nahi izaten dut nire motibazioa, nire egitura, koadernoan neukana, irakurleak ez igartzeko. Horregatik egiten ditut gauza kaotikoak. Baina ondo pentsatuta.

"Gai bati buruz idazteko asko jakin behar duzu, nahiz eta gero ez igarri"

Idazle ospetsu batzuek ongi pentsatzen dutena euren karreraren kudeaketa da. Behin liburu arrakastatsu bat idatzi eta gero...

Behin ospe bat, maila bat, lortuta beldur handia dago. Horregatik, askok antzekoa egiten jarraitzen dute, edo ez dute idazten, edo oso gutxi, edo jendea despistatzeko gauza bitxiak egiten dituzte... Ez dute aulki pribilegiatu horretatik jaitsi nahi. Ni beldurtia naiz gauza askotan, baina horretan ez, eta ez dut beldur horretan jausi nahi. Argitaratu nahi dut, saia-

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko
Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA

VIII. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte.

Tel.: 948 326535 / soltxate@pamiela.org / Arauak: www.pamiela.org





tu, gorabeheratsua izan, eta egunen baten esaten badidate ez dutela gehiago nire liburu-rik publikatuko nire lanera itzuliko naiz. Nahiago dut paniko horretan ez jausi, bestela ez duzu gozatzen, eta idaztea gozatzea da. Futboleant, bigarren mailara jaisteko beldur-zez ari bazara, hanka larritu egiten zaizu, eta ez duzu jokatzeko. Literaturan ere askotan gertatzen da hori.

“Liburu batean hitzen bitartez
lortu behar duzu dena,
baina zineman beste baliabide
batzuk dituzu. Tartean,
Hector Alterio izatea”

Zuk nahiago duzu kritikariei bazka ematen segi. Axolagabetasuna da lortu behar ez dena. Gorrotoa ala maitasuna, baina tartekorik ez. Nire nobelak oso errazak dira egurtzeko. Tira, nireak eta edozeinenak. Nik Quijotea egurtuko nuke. Erraza da, bere alde txarrak hartu eta larrutu. Jakina, jada ezin da halakorik egin, ez dakit zenbat mendeko historia daukalako, kanon batzuk daudelako, mundu guztiak itze-lezko liburua dela sinesten duelako... Baina liburua orain aterako balitz, inongo problema-rik gabe egurtu nezake alde literariotik. Ostera, berdin-berdin jarri nezake zeruan. Alde horre-
tatik, bagaje literario bat eta ezagupen batzuk baldin badituzu, kritikari izatea oso erraza da. Horregatik ez naiz hainbeste kezkatzen.

Gehiago kezkatzen zaitu hitzen musikaltasunak? Hori nire puntu neurotikoa bat da. Umetatik arreta jarri izan dut hitzen doinuak, soinuak, oso inportantea da niretzat. Zenbakiekin ere berdin. Matematikako problemak egiten nituenean, zen-baki batzuk gustatzen zitzaizkidan, beste batzuk gorroto nituen, nahasketa batzuk ederrak ziren... Hitzen konbinazio musikal perfektuaren bila 8.000 aldiz irakurtzen dut pasarte bakoitza. Batzuetan, esan nahi dudana ondo esanda dago, baina badago soinuak krika-kraka bat. Oker dagoen nota detektatzen dudanean, kendu egi-ten dut, bertan diodana garrantzitsua den arren. Nahiago dut soinuari eutsi esanahiari baino, eta kendutako informazioa aurrerago edo atzerago jarriko dut. Garrantzitsuagoa da niretzat erri-
moak egoki eta suabe eramatea.

**ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT**

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak duela lau urte abian jarritako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa duen bilduma honen xedea ezagutza edonoren esku jartzea da, liburu interesgarriak, entretenigarriak eta kalitatezkoak eskainiz. Oraingoz, sei dira bilduma osatzen duten lanak. Zientziara hurbiltzeko tresna fresko eta erabilgarriak ZIOk dakartzanak.

gure artean euskaraz

BFA DFB

Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia



AZKEN HITZA

Industria

“Dirua tarteko denean dena lorrintzen da. Atzerrian, argi ikusi dut benetako industriak daudela, enpresa gizon-ema-kumeekin, eta horiei berdina zaie botilak ala liburuak saltzen dituzten, dirua egiteko daude. Orduan, merkatua kolapsatu arte bonbardatzen dute, eta idazleak zenbaki batzuk baino ez gara”.

Aurkezten ari zaren liburuak ez ei dauka aurrekoen musikaltasunik. Lehorragoa omen, sikuagoa. Estiloz aldatzeko premia?

Hobeto edo okerrago, baina orain arte egin dudana egiten badakit, hor daude hiru liburu. Idazten ari zaren bitartean beste estilo batzuk irakurtzen dituzu, eta esaten duzu: “Hemen ere egia literarioa dago eta kapaz izango nintzateke estilo honetan beste gauza batzuei buruz hitz egiteko”. Kontatzen dudana formari egokitzeko gai naizela erakutsi nahi dut. Jende batek, beharbada, ez dagoela irakurtzerik esango du, desastre hutsa dela, baina behintzat ahalegina egiten nabil. Ondo ala txarto ateratzea hori da hartzen dugun arriskua. Beste forma eta mami batzuk lantzeko beharra sentitu dut. Harrigarria da nola, beste forma batzuk ikertzen direnean, beste gai batzuk agertzen diren, lehendik usaindu ere egiten ez genituen bide berri batzuk.

Niri zure liburuen gaztelerazko itzulpenak egiten zaizkit harrigarri. Zeuk eginak dira, eta hala ere, bertsio originalarekiko oso desberdinak iruditzen zaizkit.

Arima bera da baina nobela erabat diferentea. Askotan oso esaldi desberdina eraiki behar duzu arimari eusteko. Koloreak oso diferenteak dira euskaraz eta gaztelaniaz, soinuak eta doinuak ere bai. Esaterako, ez da gauza bera euskaraz idatzitako “igela” eta gaztelerazko “rana”. Orduan, antzekoa den baina soinu aldetik hain gogorra ez den animalia baten izena aurkitu

“Bagaje literario bat eta ezagupen batzuk baldin badituzu, kritikari izatea oso erraza da”

Idazleen jet-seta

“Idazle asko biltzen den lekuetara noanean, konturatzen naiz batzuei idaztea baino gehiago gustatzen zaiela jairik jai ibiltzea. Gustatuz gero oso erakargarria da. Gonbidapen guztiak onartuz gero, ederto baten bizi zintezke, bidaiak eginez eta medioetan agertuz. Beste aukera bat da”.

behar duzu. “Iguana”, adibidez. Halako malabarismoak beharrezkoak dira nobelaren espiritu eta osotasunari eusteko. Nobela berria, sikuagoa denez, beste norbaiti itzularazteko tentazioa izan dut, baina semea edo alaba beste bati uztea bezalakoa iruditzen zait. Bai, beharbada nik baino hobeto zainduko du baina nahiago dut nire haurra nirekin egotea.

Pantaila handirako bidean, *SP-rako tranbia* Aitzol Aramaioren eskuetan utzi zenuen, alta. Papereko musikaltasuna topatu al duzu zeluloidean?

Soinu bandan topatu dut. Minimalista da, hutsune asko ditu, elipsi asko. Oso egokia da. Pelikulari dagokionez, keinu batzuek eraman naute hitzen soinura. Gidoia irakurri nuenean elkarrizketa batzuk oso txarrak iruditu zitzaizkidan. Nik egunak eta asteak ematen ditut elkarrizketa laburrekin, eta hauek testuaren espiritua hartu eta elkarrizketa arin-arin idazten zuten, irakurketan nabarmen igartzeko moduan. Baina gero Hector Alteriok antzeztan zuen, eta testuari falta zitzaion guztia ematen zion. Liburu batean ezin duzu hori egin, hitzen bitartez lortu behar duzu dena, baina zineman beste baliabide batzuk dituzu. Tartean, Hector Alterio izatea.

Baina Unai Elorriaga ez da Hector Alterio, ez da zinemara dedikatzen. Edo bai. Liburuak irakurri ez duen kazetariari liburuak aurkeztea zazpigarren artea baita. Zeresanik ez liburuak amaitu gabe dagoenean. ■